



Gerra ohiartzunak gora bultzatu ditu munduko burtsen baloreak

DONOSTIA

Abuztuaren 2tik atzo bitartean munduko balore merkatuak lozorroan egon dira. Baina, atzo, gerraren ohiartzunak bultzatuta ikaragarriko gorakadak ezagutu dituzte. Bilboakoak honela 20,76 puntu irabazi zituen, indize orokorra 307,74an ezarritik, Paris-koak 7,05ean, Wall Street-ek 78 eta Tokiokoak 1000 yennetik gora irabazi zituzten.

Batzuentzat tragedia bat izan dena, beste batzuentzat ez da hala gertatu. Izan ere, munduko balore merkatuetan ez da joan zen abuztuaren 2az geroztik atzokoaren adinako mugimendurik ezagutu.

Uztailaren amaieran munduko burtsak oso egoera onean zeuden, nahiz eta munduko egoera ekonomikoak atzeraka egin. Orduetik egundaino burtsetan beherakako joera nagusitu da. Baina atzo ikaragarriko gorakada ezagutu dute, ezustean.

Madrilgo burtsak, esaterako, 12,10 puntu igo zituen. Pedro Gerreiro Madrilgo burtsako Elkartearen presidentek lasaitasunez joka zezatela eskatu ziren inbertsoreei. Bilboakoak 19,99 —maximo historikoa, 306,97an ezarritik— eta Hong Kongekoak 3,5. Japonian ere 1.000 yennetik gora izan zuen nikkei indizeak, % 4,4koa alegia.


Goizean goizetik Milan, Paris, Brussele eta Londreseko burtsetan % 6ko igoerak izan zituzten. Munduko burtsek bultzatuta positiboki erreakzionatu duten, beraz.

USTE ZENAREN AURKA

Adituen hitzetan, «heranegun Wall Streeteko burtsak izandako bilakaerak honelako zerbait susma erazten zuen». Izan ere, gainontzeko burtsetako indizeek beherapen txikiak ezagutu zituzten edo bere horretan mantendu ziren. Bien bitartean, iparrameriketakoak 18,32 puntu irabazi zituen.


Mundu guztiak pentsatzen zuten gerra hasiz gero petrolioaren prezioak gora egingo zuela eta burtsek are gehiago egingo zutelako beherantza. Baina errealitatea uste zenaren aurkakoak izan da. Londreseko Brent kupel petrolioaren prezioa bost dolar baino gehiago jaitsi zen eta honen burtsetako «euforia» ekarri zuen.

Gerra epe motzera bukatu daitekeela pentsatzen da eta hori onuragarria zaie munduko burtsari. «Izan ere, inbertsoreek oinarri zihurrak behar dituzte beren inbertsioak planifikatzeko. Orainarte Golkoko krisiarekin zer gertatuko zer jakin ez zekienez, balantzak nora joko zuen zain mantendu dira».



Petrolioaren prezioa igozea eta burtsak gehiago jaitea espero zen.

EFE



I. MARTIARENA

Petrolioaren prezioak behera egin zuen atzo erasoaren ondorioz


DONOSTIA

Estatu Batuek agindutako erasoaren hasierako arrakastak eragin-dako baikortasuna zela eta petrolioaren salneurriak behera egin zuten merkatu gehienetan. New Yorken esate batera, 9 dolar merketu zen petrolio kupela 23 dolarretan ipini zen beraz. Londreseko merkatuan, 26 dolarretako salneurriarekin zabaldu zen, baina eguerdirako 21,55 dolarretara jaitsi zen.

Irakiarrek Arabiako birfindegia erasotu zuela jakiteak ere ez zituen petrolio salneurriak igoerazi. «Birfindegi hori ez zegoen martxan, beraz, nahiz eta eraso egiazkoa izan, ez du eragin zuzenik izango salneurrietan», azaldu zuen analista batek. Gainera, Kairon (Egipto) adierazi zuten, petroliuntzien joanetorriak ez zireten eten gerra piztu zen une eta lekuan.

Frantziako petrolio konpainiek, erregaien prezioak bere horretan uztea erabaki zuten. 'Total' eta 'Esso' konpainiek, salneurriak ezartzeko orduan moderazioa eskatu zieten gasolina hornitzaileei.

Estatu Batuetako bost konpainia handienetarikoen ere erregai salneurriak ez igotzea erabaki zuten, frantziarrek bezala. Konpainia hauek —Mobil, Amoco, Chevron, Unocal eta Conoco— kritika gogorak jasan Irakek Kuwait hartu ondoren erregiak garetitu egin zituztelako. Madrilgo Industria Ministraritzak petrolio-produktoen kontsumoa



Petrolio produktuen kontsumoa mugatzeko neurriak har daitezke.

gutxiagotzeko neurriak ezartzeko lege-dekretoa bidali dio Ministro Kontseiluari.

Ministro Kontseiluaren joan den bileran onartutako planari aurrera

eramateko babes legala ematea da dekretu-lege honen helburua. Produktu hauek aurreratzeko bost epeko plangitza onartu zuen Espainiako Gobernuak.

ERITZIA

JOSEBATOBAR ARBULU

Petrolio eta armagintza enpresak garaile

Golko Pertsiarrean hasitako gerraren ondorio ekonomikoak aurrikusterakoan, gerrak berak suposatzen dituen gizabaliabide, lehengaiak eta bestelako baliabideak suntsitzea neurtu beharrekoa da. Nola geratuko dira munduko, Europako zein Espainia edo Euskal Herriko ekonomiak, petrolioaren prezioa kontrolatzeko, sarraski izugarria ekar dezakeen eta izendatzeko, izenik topa ezin diezaiokedan bidegabekeria horren bidez?

Estatu Batuek ez dituzte beren desorekak konponduko. Petrolioaren prezioa dela eta, petroliodun herriek ez dute, berez, arazo haundirik jasoko. Petrolio

gabeko hirugarren munduko herriek jasanen dituzte, gerrak badirau eta petrolio garestitzen baldin bada, eraso ekonomikorik garrantzitsuenak. EEn, Espainian eta Frantzia eta Euskal Herrian inflazioa areagotu daiteke, baita langabezia handitu ere. zeren alde batetik, garestitu egingo bait dira lehengaiak, eta bestetik, inbertsioak egiteko arazoak izanen dira. Bestalde, nola ez, betiko demagogia erabiliz, hemengo langilegoaren bizkar, soldadak murriztu guraz, berehala ezarri nahi izanen da inflazioa handitzearen kontrako lehen erantzuna. Baina krisi ekonomikoa Golko Pertsiarrean gatazka hasi baino lehenagokoa da. Beraz, krisi ekonomikoa areagotzen baldin bada, funtsean errua egitura eta merkatu kapitalista kontrolatzen dituztenei dagokie eta ez beste inori.

Lurzoruaren Kudeaketa eta Desjabetzapen Zerbitzua

1991ko Urtarrilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 4 zk.an, "Legorretako Esnaola Auzoko errepedetik finketan sartzeko bidea" (6-ML-117/90 Gakoa) Egitasmoaren behin behineko onarpena eman da argitaratu.

Iragarkian Proiektu honek erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatu ere ageri da.

Donostia, 1991ko Urtarrilak 14.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Herrilan eta Garraio Departamentua